



Erraldoiek eta buruhandiek ongietorria emango diete jaietara Arteleku plazan. **OLATZ BALDA**

«Auzoa eraiki» eta gozatzeko festak prestatu dituzte Txomiñenean

Hiru eguneko jaiak dira Txomiñenekoak, eta ez dira nolanahikoak. Irailaren 5etik 7ra bitarteko asteburu luzean, kirola, musika, jolasak... Hamaika aukera izango dituzte adin guztietako auzotarrek eta bertaratzen direnek jai giroan murgiltzeko.

✎ Maitane Aldanondo Gabilondo

Iraileko lehen asteburuarekin batera jaiak heltzen dira Txomiñenara; eta aurten, salbuespenik ez da. Jardueraz beteriko hiru eguneko festa trinkoak dira, irailaren 5etik 7ra, eta azken ukituak eginda, bi aste lehenagotik dena prest du jai batzordeak. Betiko jarduerari eutsi, berriak gehitu, eta gainbeheran zetorren baten bat kenduta, Arteleku plazan

adin guztietako lagunek izango dute bere neurrikorik, bereziki, haurrek.

Txupinazoarekin hasiko dituzte jaiak ostiral arratsaldean, eta aurten aitortza egingo diote jaietako kartel lehiaketaren irabazleari. Bestelako aintzatespen bat ere prest du jai batzordeak, baina ezustekoa izatea nahi du. Hortik aurrera, urteroko zereginekin gozatzeko aukera izango dute auzotarrek: haurrei

puzgarriak gustatzen zaizkie, adinekoei, berbena; toka eta bote txapelketetan giro polita sortzen da; futbol finalek jende asko erakartzen dute; goizetan gauza xumeak badaude ere, ondo funtzionatzeko dute... Heldu diote gainbeheran datorren mus txapelketari, baina Maitasunaren Tonbola kendu dute, «festa giroa eteten» zuelako.

Klasikoez gain, berritasunik ere bada. Iaz, helduen krosa egin zuten lehenengoz, ibaiertzeko parkean; aurten, 5,6 kilometroko ibilbidea moldatu dute, Arteleku plazako festa gunea sartuta. Gainera, haurrek ere izango dute beren aukera, I. Haur Krosa eta minimoto lasterketan. Artisautza azoka, parrillako pintxo-potea eta zurezko jolasak ere estreinakoz egingo dituzte; eta «aldatzeko», DJ saioei Rock Kam Broom taldearen kontzertua gehitu diete. «Ea jende gehiago datorren, dirua txosnan ateratzen baitugu», dio jai batzordeko Ana Lopezek.

Jaiak antolatzekeo ardura dozena bat lagunek osatutako talde batek du. «Betiko» auzotarrak dira gehienak, nahiz eta etxe berrietara etorritakoak ere badiren. Edonola, beti badituzte gauzak atontzen esku bat botatzeko prest daudenak, «ezinbestekoak». Urteak daramatzatenetakoak dira Lopez, Amaia Karrera, Jasone Fernandez eta Javi Rey. Azaldu dutenez, «auzoa egiteko» antolatzen dituzte jarduerak. Karre-raren hitzetan, «auzo oso familiarra da, txikia, jaiotzetik denok elkar ezagutzen dugu... Dinamika horretatik gatoz eta lotarako erabiltzen duen jendea etorri zaigu. Zaila da mantentzen».

Kosta egiten zaie, ordea, diruz lagunduko dutenak topatzea, auzoan ez baitago komertzio gehiegi; eta kexu dira udalaren diru laguntzarekin: «Hutsaren hurrengo da egiten ditugun jarduera guztientzat». «Ulergaitza» zaie horren auzo handiak horren diru gutxi izatea. Edonola, ahalegintzen dira jarduerak doakoak edo «salneurri sinbolikoaren» truke egiten, are gehiago, haurrez betetako gunea izanik. Urtero eskaintzen dizkiete barrakak, baina uko egiten diete antolatzen dutena «despistatzen» duelakoan, «jendeak egiten dugunaz gozatzea nahi dugu». ●



OSTIRALA 5

16:00

III. Futbol 5 Txapelketa. Gutxienez, bost umeko taldeak. Izen emateak, abuztuaren 31 arte.

17:00

Txokolate jatea.

18:00

Txulalai ikuskizuna. Aurrez, *Kantu kolore*.

19:00

Txupinazoa eta jaien hasiera. Erraldoiak, buruhandiak eta kalejira ilargi txarangarekin.

21:30

Herri afaria. Erreserbatu zure mahaia eta ekarri zure afaria, irailaren 1a arte (2€/pertsona).

23:30

Zezensukoa.

23:45

Dantzaldia Radio Rebelde Music taldearen eskutik.

LARUNBATA 6

09:30-15:30

3x3 basket txapelketa.

10:30

Haur jolasak, elkarlaneko eta banakako jolasak.

Mural artistikoaren margoketa.

Aurpegiak margotzea, ingelesez.

12:00

Marrazki eta pintura lehiaketa, eta eskulan tailerra.

13:00

Parrillako pintxo-potea.

16:00

III. Futbol 5 Txapelketa

Haur parkea: zezen mekanikoa, puzgarriak eta ekortzeko makina (4€/eguna).

VI. Zezen mekanikoaren nazioarteko rodeoa (8-17 urteko umeentzat).

18:00

Patata tortilla lehiaketa. Tortillak ematea arratsalde osoan zehar txosnan.

19:00

Hat Party Anersote DJ-rekin.

21:30

Zapato afaria. Erreserbatu zure mahaia eta ekarri zure afaria, irailaren 1a arte (2€/pertsona).

22:00

Anersote DJ.

23:30

Zezensuzkoa.

00:00

Rock Kam Broom taldearen kontzertua.

IGANDEA 7

10:00

II. Txomin Power herri krosa. Izen emateak: *Herrikrosa.eus*

10:00-14:00

III. Futbol 5 Txapelketa.

11:00

Artisautza azoka.

I. Haur krosa eta minimoto lasterketa. Izen emateak: jaien webgunean.

11:30

Zurezko joko erraldoiak.

12:30

Remix musika gaurko eta betiko kantuekin eta mokadua jubilatuta martxosoentzat.

14:30

Paella jate herrikoia. Izen ematea abuztuaren 31 arte.

16:00

Bote eta toka txapelketa.

16:30

III. Futbol 5 Txapelketaren finalak.

Ginkayak ginkana Urumeatik.

Izen ematea abuztuaren 31 arte.

17:00

Remember'90 festa Lonbi DJ eta Nito DJ-ren musikarekin.

20:00

Festaren bukaera eta azken traka.